


# IKASLEEN TXOKOA - Elizatxo Ikastola

## Nerabezaroan haurdunaldia / II

JOSU AZABAL, UXUE PEREZ ETA AMAIUR TRANCHE




BONSAI KATUAK / II  
NAGORE, AMAIA ETA NAIARA

SAGARDOTEGI GARAIAK ONURAK  
EDO KALTEAK DAKARTZA? / III  
AMAIA PEREZ

III / GUZTIA ALDATU DA  
NORA DRUEZABALA

- 1995eko urriaren 6a Donostia -  
III / EGUNEROKOA  
OLATZ EGANA



LIGARIK ONENA / III



EMAKUME KIROLARIA  
BAZTERTURIK OTE? / IV



EGILEEN ARGAZKIA / IV

IRITZIA  
IV / ORDUTEGI TRINKOA  
AMAIUR TRANCHE OTXANDRENA

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

## ELIZATXO IKASTOLA

# Nerabezaroan haurdunaldia

Nerabeen haurdunaldiaren arrazoi nagusietako bat familiarik eta eskolak emandako informazio eskaxa da.

Nerabea normalean ez dago prest halako ardurari aurre egiteko, ez fisikoki ezta psikologikoki ere.

JOSU AZABAL, UXUE PEREZ ETA AMAIUR  
TRANCHE

Elizatzko ikastola

NERABEZAROA pertsona bakoitzak ugaltzeko gaitasuna lortzen duen eta pentsaera helduagotu egiten zaien garaia da. Osasunarekiko arazo handirik gabeko etapa da, baina salbuespen garrantzitsu bat ugalketan ikus dezakegu. Herrialde askotan nerabeek biztanleriaren %20-%25 satzen dute. Munduan, garai batean, 856 milioi nerabe zeuden, eta gaur egun nerabeen kopurua 1,1 milioietaraino jaitsi da. Ugalketa sexualaren aktibitatea handitzen dihoa munduan

zehar nerabeen artean, ustekabeko haurdunaldiak sortuz 20 urte-tik beherako emakumeengan.

### Klase sozial guztietan

Maila erdi eta altuan: haurdun geratzen direnen gehiengoek haurdunaldia eteten dute, beraien kabuz.

Maila baxuan: Leku hauetan nerabeen amatasuna onartu egiten dute, beraz, gehienetan umea edukitzen dute.

Haurdunaldien zergatia saihes daiteke, baldin eta nerabeek ikastoletan eta etxean informazio egokia jasoko balute: prebentziorik gabeko sexu harremanak, drogen kontsumoak eragiten duen kalteari buruz, eta abar.

Baina heziketa ez da eskolaren ardura bakarrik, lehenik eta behin, gurasoek azaldu behar dizkiete beren seme-alabei nerabezaroan sexu harremanak edukitzearen arazoak eta arriskuak.

Badaude laguntza taldeak non neraberi haurdunaldia eta erditzea jasaten laguntzen dioten.

Errealitatean, nerabe hauek ama bihurtzen dira heldutasun fisikoa eta psikologikoa lortu gabe eta beraien bizitza antolatu



Emakume haurduna.

gabe. Horrek haurrarentzat mantentze desegokia dakar.

Hau ikus daiteke Argentinan non baloreen krisia ematen ari den. Haurdunaldiak ama eta umearen arteko lotura afektiboa handitzen du. Horrela gazteek norbait zaindu behar dutenaren beharra sentitzen dute konpainia eta afektibitatea landuz. Guzti honek adierazten digu oso garrantzitsua dela nerabeen haurdunaldiaz arduratzea, etorkizuneko gizarterako eta nerabeentzako.

### Bikoterik gabeko nerabea

Askotan nerabea haurdun geratzen denean, bikoterik gabe egoten da eta, bakarrik, gurasoen laguntzarik gabe. Hau da, oraindik umeak dira eta bat-batean ama izatera iritsi behar dute.

Nerabeak, haurdunaldian aldaketa psikiko ugari jasaten du, adibidez, beldurrak, lagunengandik begiradak eta umea hazi beharra.

Nerabeak ez du ama izan nahi eta askotan umea beren amei ematen diete, honek era berean ez du amona izan nahi.

EAEn adolezenteetan gertatzen diren hamar haurdunaldietatik lau, abortuarekin bukatzen dira, Espainiako eskualdeetan baino batez besteko zertxobait altuagoa. Izan ere, 80ko hamarkadaren bukaera aldera etendako haurdunaldiek gorakada handia izan dute. Badirudi EAEn abortuaren aukera estabilizatu egin dela adolezenteen artean. Abortu-kopuru horren arrazoiak hezkuntzan bilatu behar dira, eskolan ematen den informazio sexuala oso eskasa eta hala moduzkoa baita. Gazteen artean % 8k soilik izan zuen antisorgailuei buruzko informazioa eskolan. ||

## Bonsai katuak

Tamaina txikiko katuak botilatan sartzen dituzte, hauen bizitza jokoan dagoen bitartean...

NAGORE, AMAIA ETA NAIARA

DUELA gutxi hasi zen moda hau. Hasiera batean landareekin erabiltzen zen metodoa zen. Horrela zuhaitzak eta landareak beren errealitatezko tamaina baino txikiagoa den batera egokitzen dituzte. Moda hau Asian hasi zen, eta mundu osoan zehar zabaldu da. Gaur egun nork ez daki bada, landareak tamaina txikiago batean mantentzen dituztela?

Metodo honek arrakasta izugarria izan duenez, dagoeneko New York-en bizi den mutil japoniar bati metodo hau animalia edo hobe esanda katuarekin aplikatzea bururatu zaio. Honek arrakasta handia izan du, izan ere, ikaragarria da nola sartzen dituen jaioberririk diren katuak potioetan.

Berak dioenez nahiko erraza omen da: katuei sonda bat ipin-

tzen die ipurdian eta sondaren beste muturra, potioaren ahotik ateratzen da kanporantz. Sonda horretatik substantzia kimikoak sartzen dira, horrela katuaren hezurak biguntzen dira eta potioaren formara egokitzen dira.

Japoniarrek esaten dutenez katu hauek etxerako apaingarri gisa erabiltzen dira edo bestela haur txikiarentzako jostailu gisa. Jendeak Bonsai Kitten izeneko web orri baten bitartez erosten ditu katuak.

### Prezio ezberdinak daude:

- Katu normalak potioan: 600€
- Katu koloredunak potioan: 750€
- Zure katuaren ematen baduzu: 100 + katuaren €
- Katu asko botila batean (katu bakoitza): 150 €

Bonsai katuak modernarteko azken moda dira eta nahi duenak izan dezake bat etxean.

Hau egia bada, animalien tratua txarren kasu baten aurrean gaude. Zer egin dezakegu hau ekiditzeko?

Bada, horretarako badira web-orri eta kanpaina asko moda honen aurka borrokan.

Beraien diotenez, hau ez da normala eta denek hau ekiditzeko laguntza eskatzen dute. Beste askok diote hau interneteko broma bat besterik ez dela, eta beraien begiekin ikusi arte ez dutela sinetsiko, baina hor daude argazkiak...

Broma bat ote da? Broma izan edo ez, hau ez da txantxetako jokoa, animalien bizia jokoan jarritzen baita horrelako gauzekin. ||



Bi katu ontzi barruan.



## Sagardotegi garaiak onurak edo kalteak dakartza?

AMAIA PEREZ

LEHENIK eta behin, orain azalduko dudan gaia honako hau da, sagardotegi garaiak gazteek herria nola uzten duten. Niri oso gai interesgarria iruditzen zait. Ni ez naiz kaxkoko partean bizi, baina larunbat eta igande gauetan bertatik ibiltzen naiz eta ez nago batere ados gazteek egiten dituzten gauza batzuekin.

Hemen, Hernanin, sagardotegi garaia hasten denean izugarriko jendetza biltzen da. Arazoa gazteak sagardotegietatik atera eta herrira joaten direnean hasten da. Gazte gehienak edanda datozen ez dira beraien buruen jabe eta, horren ondorioz, batzuetan herriko zakarontziak eta komun mugikorak lurrera botatzen dituzte. Gainera, hau gutxi balitz, Hernaniko Udalak Gudarien Enparantzan eta Plaza Berrin jartzen dituen komun mugikorak erabili ordez, herriko edozein paretatan egiten dute pixa. Horrek ere arazoak dakartza kaleetan kiratsa, esaterako.

Tabernetan ateratzen dizkieten edalontziak ere edozein ixkinatan uzten dituzte eta erori egiten dira. Honen ondorioz, kaleko lurra ere oso itsaskorra eta nazkagarria gelditzen da.

Hemengo Udaltzainek, aurreko urtetan, ezer gutxi egin zuten horrelakoak galarazteko. Ni kalean egoten nintzenez, oso gutxitan ikusten nituen herritik bueltaka. Ez dakit beraien lana hori izango den, baina

niretzat beharko luke izan. Hau da, larunbat eta igande gauetan ateratzea eta herriko giroa nola dagoen ikustea.

Hau ere, bide istripuekin lotu dezakegu, hain zuzen ere, parranda egiten duten gazteen artean badira edan egiten dutenak eta ondoren, etxera bueltatzeko, kotxea hartu beharko dutenak. Momentu horretan ez dut uste beraien buruen jabe izango direnik eta orduan kotxea hartu eta azeleradorea zapaldu egiten dute inongo beldurrik gabe eta izugarriko abiaduran jartzen dira segundu batzuetan.

Gainera, gaua denez eta argi gutxiago egoten denez, hildako eta zauritutako gehiago egon daitezke. Hala ere esan egin behar dut Hernanira etortzen den gehien-goia autobusez etortzen dela.

Gure herria nolako baldintzetan gertatzen den kontuan hartuta, honako hau proposatuko nuke: udaltzaingoaren parte hartze handiagoa, datorren jendeak gehiago kontrolatzea bere jarrera eta, batez ere, denon parte hartzea horrelako ekintzak ez gertatzeko. Adibidez, norbait hasten bada zerbait puskatzen edo gauza desegoki bat egiten, bere inguruan jendea badago atentzia deitzea gustatuko litzaidake.

Niri berdin dit jendea kanpotik etortzea eta hemen ondo pasatzea, baina ez zaidana batere gustatzen herria nolako baldintzetan uzten duten da. ■

1995eko urriaren 6a Donostia

## Egunerokoa

Kaixo eguneroko maitea:

Gaur! Gaur da eguna! Nire amaren tripatik atera beharra daukat. Ez dut atera nahi. Nire amaren tripan goxoxo nago.

Bat-batean indar batek kanpora bultzatu nau. Nik ez dut atera nahi. Oso ondo nago hemen barruan. Oso ondo zaintzen ninduen nire amak 9 hilabetetan tripan nengoenean. Mugitzen nintzenez musika jartzen zidan eta lasaitu egiten nintzen.

Sufritzen ikusi dut nire ama!! Indar handia egiten, ni atera nahian. Nire ama horrela ikusita atera egin naiz. Atera naizenean, bi emakume lodik,

hartu naute eta garbitzera eraman naute.

Gero nire amarengana eraman naute eta nire ama negarrez hasi da. Bat-batean gizon-emakume bikote batek hartu nau. Hasieran beldurtu egin naiz eta gero pentsatzen gelditu naiz eta orduan konturatu naiz nire aitona-amonak direla!

Nire bizitzako egunik onena izan zen. Orain hazi egin naiz eta egunero esaten diot nire amari: "Eskerririk asko mundura ekartzeagatik".

✍

OLATZ EGAÑA  
Eliztxo ikastola

## Guztia aldatu da

EGUNERO egunero eskolatik ateratzen ziren. Neskak txingora jolasteko ilusioz eta mutilak, berriz baloiari ostikoak emateko gogoz. Zapi huts batez, amak eginiko bost soineko; etxeko alaba bakoitzarentzat igandero elizara joateko.

Dudarik gabe, denborak aurrea egin du eta etxeetara aparatu elektronikoko berriak sartu dira. Adibidez, duela mende erdi gure egongelako sofa aurreko altzairuaren gainean inoiz falta ez den telebista. Lehen, bi kanalekin pozik zeudenak, orain mandoarengatik bere familiakoekin borrokatzen direnak egunero gehiago baitira. Izan ere, ehunka kanal daude, egongela bat eta telebistarengatik borrokatzen duten lau, gutxienez. Ordenagailua ere aipatu beharra

dago. Duela hainbat urte "internet" hitza esaten zigutenean zer zen ere ez genekien, orain berriz badakigu egunkaria egun baterako erosi ordez bertan begira dezakegula. Horretaz gain, gure arropa garbitzen duen ikuzgailua, geroz eta gehiago erabiltzen diren usain eta mota guztitako kondoiak eta janaria denbora oso gutxian berotzen duen mikro uhin labea.

Eta egunero, eta astero, teknologiak gure bizitzetan sartzeko abiadura moteltzen ez badu, behintzat, ahaztu egingo zaigu Tomas Edisoneren asmakuntza handia: bonbila.

✍

Nora Oruezabala  
Eliztxo ikastola

## Ligarik onena


GAUR egun munduko kirol erregea futbola dela esan daiteke, jende gehienak praktikatzen duelako eta diru gehien mugitzen duelako. Jende askok gustoko duenez beti sortzen dira galdera asko kirol honen inguruan: zein da jokalaririk onena? Talderik onena? Baina zein ote da ligarik onena? Gai hori oso interesgarria iruditzen zaidalako aukeratu dut. Egungo garrantzitsuenak, ingelesa, espainola eta italiarra dira. Hirurak oso indartsuak dira baina beti egon izan da bat indartsuena dena. Duela gutxi arte espainiakoa zen; baina orain, nere ustez, ingelesa da garrantzitsuen, hau da, futbola sortu zen herrialdekoa.

Futbola sortu zenetik, geroz eta diru gehiago mugitzen du eta izugarriko kantitateak ordaintzen dira jokalarientzat. Ingalaterrako talde gehienak akzionista dirudunek erosiak dituzte, beraz, ekonomikoki talde indartusuenak direla esan daiteke. Ekonomikoki indartsuenak direnez jokalariai errazago fitxa ditzakete.

Telebistak ere izugarriko garrantzia du futboleko ekonomikoki. Telebista kateek kantitate handiak ordaintzen dituzte eta publizitateak ere asko laguntzen du. Inkesta batzuen arabera ligarik ikusiena Ingelesa izan da 2007. urtean.

Ligaren arabera ere, jokatzeko estiloa desberdina da: Ingelesa futbol azkarrak eta fisikoa. Espainiarrak, teknikoa, motelagoa eta estrategiak garrantzi handia duena. Italiarrak, oso defentsiboa da eta, gehien ustez, itsusiagoa.

Futbolaren gauzarik politenetakoa zaletuak dira. UEFAren, Europako



futbol erakundearen, datuetan oinarrituta talde ingelesak dira jende gehien desplazatzen dutenak nazioarteko txapelketetan.

Txapelketa internazionaleri buruz hitz egiten badugu, talde ingelesak dira nagusi azken urteotan. 2007-2008ko "UEFA Champions League"an, Europako talde indartsuenek parte hartzen duten txapelketan ingelesak izan ziren nagusi.

Talde Ingelesak dira ekonomikoki indartsuenak, audientzia gehienekoa, afizio edukatu eta gehien desplazatzen dutenak munduan zehar, baloreak babesten dituztenak eta internazionalki txapelketetan. Horregatik liga Ingelesa indartsuena dela defendatzen dut.

Espainiarrak eta Italiarrak indartzeko zaletuek zelaia bete behar dituzte eta gehiago animatu, hori baita futbolaren gauzarik politena taldearekiko pasioarekin batera. Dirua dutenak ere futboleko inbertitzera animatzen ditut talde asko egoera larrian baitaude. ■



# Emakume kirolaria bazterturik ote?

AZTERTUKO dudana gaia emakumezko futbolarien egoera da, interesgarria iruditzen zaidalako, batez ere, ni neu Hernani futbol taldean aritzen naizelako eta gertutik nabari dudana arazoa delako. Nire ustez, oso baztertua dagoen kirola da.

Batetik, mutilen maila profesionala telebistan nahi den momentuan ikus daiteke bai errepikapen, bai partiduak. Emakumeena ez da ia ikusten, ETB 1-en ez bada. Hala ere, oso gutxitan izaten da, asteburuetako eguerditan (telebista gutxien ikusten den uneetan).

Bestetik, gizonezko profesionalen fitxek balio duten diru kopurua, emakume profesionalenetik oso urrun dago. Adibidez, Real Sociedadeko gizonen fitxaketek, gutxi gora behera, bi milioi euro arteko kopurua balio dute, klub berdineko emakumeen fitxaketek 3.000€ balio duten bitartean.



Jabalina jaurtitzaillea.

Modu berean, partiduetara joaten diren ikasleen kopurua ere ez da berdina, ezta sarreraren balioa ere. Esaterako, errearen edozein partiduetara 20.000-28.000 ikusle joaten dira; emakumeen partiduetara,

ordea, ez dira 400 baino gehiago joaten.

Ez hori bakarrik, interneten ere ez dago informazio askorik emakumeen futbolari buruz.

Baina, emakume profesionalak ez dira bazterturiko

bakarrak. Emakume gazteagoen kategoria gutxi daude gaur egun eta, dirudienez, gehiago ateratzeko ez daude prest. Hori frogatzeko, federazioak orain dela gutxi emakumezkoen maila jubena ateratzeko proposamena egin zuen. Klub guztiek, berriz, ez zuten onartu proposamen hura.

Esanak esan, emakumeen futbola bazterturik dagoela argi dago, nahiz eta, gaur egun laguntza gehiago jasotzen ari den.

Nik futbolaren egoera aztertu dut, baina beste kirol askotan ere diskriminazioa dela eta, egoera hau ematen da. Adibidez, olimpiadetan emakumeak gehiago ikusten dira, baina atletismoa da gehien ikusten den kirola eta beste kirolak ez dira maiz ikusten emakumeak.

Amaiera emanaz, saia gaitzen guztiok hobetzen gaur egungo emakume kirolariaren egoera latza. ■

## IRITZIA

# Ordutegi trinkoa

Nire iritziarekin hasi baino lehen, ordutegi trinkoari buruz hitz egingo dudala esan nahiko nuke.

Nire ustez, bigarren hezkuntzako eskolan ordutegi trinkoa jarri beharko lukete hezkuntza agintariek. Eskolaurreko eta lehen hezkuntzako ikasleek adin txikiak dute sei orduz jarraian klasean eta lanean aritzeko, baina bigarren hezkuntzakoentzat ez zait luzeegia iruditzen.

Espainiako autonomi erkidego gehienetan, ia guztietan, ordutegi trinkoa dute bigarren hezkuntzako eskolan eta Kanariar irletan, Gaztela Mantxan, Andaluzian, Estremaduran, Asturiasen, Balearretan eta Murtzian baita lehen hezkuntzan eta eskolaurrean ere.

Lau irakasletik hiruk ordutegi trinkoan ikasleen errendimendua hobea dela ziurtatzen dute. Ikuspuntu pedagogikotik ordutegi trinkoa probetxugarriagoa dela diote jakitunek; izan ere, ikasleen errendimendua behera egiten du arratsaldeko orduetan, goizeko orduak baitira arreta mantentzeko gaitasun handiagoa dugun orduak. Hori esan ondoren, zera erantzen dute, goiz-arratsaldez aritzean, azkenerako, nekatuago bukatzen dutela ikasleek.

Horretaz gain, ordutegi trinkoaren beste abantaila bat arratsaldeko orduak eskolaz kanpoko ekintzarako erabil daitezkeela.

Jendearentzat ordutegi honek dituen arazoetako bat guraso eta seme-alaben ordutegiak konbinatu ahal izatea da. Gauza da, guraso askok arratsaldez lana izaten dutela eta seme-alabak txikiak direnean ezin izaten direla bakarrik egon. Beste arrazoen artean horregatik uste dut lehen hezkuntza eta eskolaurreko ikasleek ez luketela ordutegi trinkoa izan behar.

Eskola publikoetan ordutegi hau jarri duten autonomi erkidego gehienetan, eskola pribatuek ere aldatu dute ordutegia.

Hori dena hala izan arren, jakitunek diotenez eskola porroten arrazoi nagusiak ez dira ordutegiak, familien egoera sozioekonomikoa eta kulturala baizik.

Arrazoi guzti horientatik, eskatuko nioke Hezkuntza Sailburuari hurrengo urteari bergira bi aldiz pentsa dezala bigarren hezkuntzako eskolan ordutegi trinkoa jarztearena. Nire ustez guztien onerako izango litzateke.

Amaiur Tranche Otxandorena  
Elizatzko ikastola

## Alearen egileak:



Elizatzko ikastolako ikasleak izan dira gaurko alearen egileak.